

MARRAZKI BIZIDUNEN AZTERKETA

SOZIALIZAZIO AGENTEAK: KOMUNIKABIDEAK

KOMUNIKABIDEEN ERAGINA AZTERTZEN:

Haurrak ez du irizpide kritikorik baloratzeko telebistan ikusi eta entzuten duena. Horretarako, zuek hezitzaile gisa haurrentzat zuzendutako marrazki bizidunak aztertuko dituzue eta egokitasunaren inguruko erabakiak hartuko dituzue. Horretarako:



1. SAIOAREN AZTERKETA

HARTZ TXIKI- ZOTINA

- ZER ADINETAKO HAURREI DAGO ZUZENDUTA?

Gomendatutako adina 2-6 urte da. 2-3 urteko haurrentzat, ulertzeko errazak dira baina hobe da heldu batekin ikustea. 4-6 adin tartea izango zen adin tarte egokiena.

- ZEINTZUK DIRA PROTAGONISTAK?

Hartz txiki, hartz ama, hartz aita, oilo (Mokoilo), ahate(Pattal), katua(Zapi), hontza, Emili, Luzia panpina, aiton-amonak.



- NOLAKOAK DIRA FISIKOKI?

Hartz Txiki, hartz txiki bat da kolore marroi edo beixekoa. Gorputz nahiko borobila eta leuna da, baita begi handi eta aurpegi atsegina ere.

Beste pertsonaia batzuk, hau da, bere familia eta animalia lagunak, animaliak dira bera bezala. Esaterako, hartzak (gurasoak eta aitona-amonak), untxia, igela... Pertsonaia hauek oso forma biribilak eta sinpleak dituzte hauek ere, gainera, koloreak leunak dira, pastel tonuak. Gainera, ez dute xehetasun konplexurik.

Emili ez da animalia bat, Emili gizakia den neskatila txiki bat da. Itsura sinplea eta atsegina du, aurpegi adierazkorra ere badu (irribarrea, jakin-mina...) Bere arropa koloretsua den arren sinplea da.

Azkenik, Luzia panpina dugu. Hau panpina klasiko bat da, txikia eta biguna dirudiena. Itxura oso sinplea du, begi txikiak eta forma biribilak. Normalean Emilirekin agertzen da Luzia.

- ZER MOTATAKO EDUKIAK/GAIK LANTZEN DIRA?


Gai eta eduki desberdinak lantzen dira, batetik, eguneroko bizitzako ohiko egoerak agertzen dira, adibidez, jatorduak azaltzen dira, bertan hartz txiki eta bere ama eta aitaren artean ematen diren elkarrizketak azaltzen dira normalean. Jatorduez gain, hartz txikiren familian bizitzen dituzten egoerak azaltzen dira, adibidez, urtebetetze festak agertzen dira, etxeko zereginak nola egiten dituzten ikusten da... esan daiteke, ohikoak diren familia arteko egoerak azaltzen direla. Egoera hauetan, hartz txikik bere ama eta aitarekin duen harreman afektiboa eta lotura ikusten dira eta elkarren artean dagoen harreman ona azaltzen da. Honez gain, hartz txikik bere lagunekin duen harremana ere ikusten da eta lagunaren artean gertatzen diren zailtasunak, momentu atseginak... lantzen dira. Egoera hauen bitartez, elkarren arteko maitasuna, babesa eta elkar zaintzearen garrantziaz jabetzeko aukera ematen du.



Ingurumenak eta naturak ere protagonismo handia du marrazki bizidun honetan. Animalia ugari agertzen dira, baita landare eta zuhaitz desberdinak ere. Atal gehienetan, ingurua esploratzen jarduten dute hartz txiki eta bere lagunak, besteak beste, inguruko basoa, errekek... Ingurumena eta natura, fantasiarekin eta irudimenarekin lotzen dira, izan ere, irudimenezko istorio sinpleak sortzen dira, adibidez, ilargira joaten dira, hartz txiki eta bere lagunak.

- ZER MOTATAKO HELDUAK AZALTZEN DIRA?

Amaren eredua zaintzailea eta babeslea da. Ama pertsonaiak maitasuna, pazientzia eta ulermena erakusten ditu. Amak, egoerak ulertzen, beldurrak gainditzen eta gauzak berriak ikasten laguntzen dio Hartz txikiri. Jokabide hauen bitartez, haurreri erakusten zaie nola izan behar duten arduratsuak eta enpatikoak.



Aitaren eredua aldiz, laguntzailea eta gidaria da. Aitak, aholkuak ematen dizkio, batzuetan jolasean aritzen da Hartz txikirekin eta arazoak konpontzen laguntzen dizkio. Ereduek honek erakusten duena da, helduek garrantzi handia dutela haurren garapenean, bai emozionalki eta baita praktikoki ere.

- **BEHATU DAITEZKEEN ELKAR-HARREMANAK:**

Hainbat elkar-harreman agertzen dira modu sinple eta ulergarrian. Alde batetik, familia-harremanak daude, non maitasuna eta babesa erakusten diren. Bestetik, lagun arteko harremanek elkarlana, enpatia eta partekatzea lantzen dituzte. Laguntasunaren bidez, partekatzea eta elkar ulertzea bezalako balioak transmititzen dira.

Gainera, naturarekiko harremanak ingurunea errespetatzen irakasten du, eta gizarte-harremanek besteekin ondo bizitzen laguntzen dute. Azkenik, irudimenak sormena garatzeko aukera ematen dio Hartz txikiari.

- **NOLAKO ONDORIOAK IZAN DITZAKE HAURRENGAN?**

“Hartz Txiki” marrazki bizidunek hainbat eragin positibo izan ditzakete haurrengan. Alde batetik, enpatia eta emozioen ulermena garatzen laguntzen dute, pertsonaien bidez sentimendu ezberdinak modu erraz eta ulergarrian erakusten baitira. Horrez gain, laguntasuna eta errespetua sustatzen dituzte, harremanen garrantzia azpimarratuz.

Bestalde, gatazkak modu baketsuan konpontzen irakasten dute, egoera txikien bidez irtenbide egokiak proposatuz. Era berean, haurren irudimena eta sormena pizten dituzte, istorio sinple baina esanguratsuen bidez. Hizkuntza eta komunikazioa lantzen ere laguntzen dute, hizkera argia eta egunerokoa erabiliz.

Azkenik, erritmo lasaia dutenez, arreta eta kontzentrazioa bultzatzen dituzte, haurrek istorioa lasai jarraitzeko aukera emanez.

- Enpatia eta emozioen ulermena garatzen ditu
- Laguntasuna eta errespetua sustatzen ditu
- Gatazkak modu baketsuan konpontzen irakasten du
- Irudimena eta sormena pizten ditu
- Hizkuntza eta komunikazioa lantzen laguntzen du
- Erritmo lasaiak arreta eta kontzentrazioa bultzatzen du

2. ONDORIOAK

Aztertutakoaren arabera, “Hartz Txiki” marrazki bizidunak oso egokiak dira haur txikientzat, bereziki 2 eta 6 urte bitartekoentzat. Edukiak, hizkuntza eta erritmoa adin horretara egokituta daude, eta horrek ulermena eta arreta errazten ditu.

Bestalde, familia eta lagun arteko harremanen bidez, maitasuna, errespetua, enpatia eta elkarlana lantzen dira. Gainera, gatazkak modu baketsuan konpontzeko ereduak eskaintzen du, haurrek eguneroko bizitzan aplikatu dezaten.

Era berean, agertzen diren helduen ereduak egokiak eta positiboak dira haurrentzat. Gurasoek jarrera zainzailea, ulerkorra eta laguntzailea erakusten dute, eta horrek erreferente onak eskaintzen dizkie haurrei.

Naturaren presentziak eta istorioen sinpletasunak irudimena eta sormena sustatzen dituzte, eta aldi berean ingurumenarekiko errespetua lantzen da.

Azkenik, seriearen ezaugarri nagusietako bat den erritmo lasaia oso onuragarria da, haurrek arreta eta kontzentrazioa garatzeko aukera ematen baitu, gainestimulaziorik gabe.